



ITSASONDOKO  
UDALA

## Atariak eta eremu komunak garbitzeko oinarrizko jarraibideak

Eremu komunak garbitzeko, lixiba disoluzio bat erabili behar da: **ur litro bakoitzeko, 2cl lixiba**. Beste produktu desinfektatzaile edo biruzida batzuk ere erabil daitezke, aldeztatik koronabiruserako baliozkoak diren kontsultatuta.

Ahal bada, botatzeko baietak, papera eta eskularruak erabili behar dira, eta, ezin bada, produktu horiek garbitu beharreko eremuetarako bakarrik erabiliko dira.

Garbitzean **arreta berezia jarri**: **ateetako eta armairuetako heldulekuei, igogailuetako eta tinbreetako botoiei, postontziei, barandilei eta interruptoreei**. Horiek baitira birusa edukitzeko arrisku handiena duten elementuak.

Mesedez, bidali jarraibide hauek ataria garbitzeaz arduratzen diren pertsoneri. Garbiketako langilerik ez dagoen lekuetan, beharrezkoa da bizilagun guztiek hartzea kontuan oinarrizko prebentzio neurri hauek.

